

IV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Egizu, Jainko gure Jauna,
Zu bihotz-bihotzez maite zaitzagula,
eta gizon-emakume guztiak geure burua bezela maita ditzagula.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dt 18, 15-20

*Profeta bat aterako diet Nik,
eta nire hitzak ezarriko dizkiot ahoan.*

Deuteronomio liburutik

Moisesek honela hitzegin zion herriari: «Jaunak, zure Jaungoikoak, ni bezalako profeta bat aterako dizu zure erditik, zure senideen artetik; hari entzun behar diozue. Hori da, batzar egunean zuk Jaunari, zure Jaungoikoari, Horeb mendian eskatu zeniona, esanez: "Ez dut berriz Jaunaren, zure Jaungoikoaren, mintzorik entzun nahi; ez dut berriz su haundi hau ikusi nahi, ez dut hil nahi".

Eta Jaunak esan zidan: "Ongi dago esan dutena. Zu bezalako profeta bat aterako diet Nik beren senideen artetik; nire hitzak ezarriko dizkiot ahoan, eta Nik aginduko diodana esango die. Baina Nik agindu ez diodan zerbait, nire izenean esatera ausartuko balitz, edo jainko arrotzen izenean hitzegingo balu, hil egingo da profeta hura"».

ERANTZUN SALMOA: Sal 94, 1-2. 6-7abc. 7d-9

**R/. Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa:
«Ez gogortu zuen bihotzak».**

Zatozte, pozez oihu degiogun Jaunari,
txalo degiogun salbamen dugun Harkaitzari.
Hurbil gakizkion aurrera esker-kantuekin,
jai degiogun txalo eta eresiekin. R/.

Zatozte, ahuspez jaurets dezagun,
egin gaituen Jaunari belaunika gakizkion.
Bera baita gure Jainkoa,
gu, berriz, Haren larreko herria,

Haren zainpeko artaldea. R/.

Entzungo al duzue gaur Haren mintzoa:

«Ez gogortu zuen bihotzak Meriban bezala,
Masa-egunean basamortuan bezala.
Zuen gurasoek han zirikatu ninduten,
Nik eginak ikusi arren, tentatu ninduten.» R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 7, 32-35

*Neskatxak Jaunaren gauzetan du ardura,
Berarentzat izateko.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Zuek kezkarik gabe bizitzea nahiko nuke nik. Ezkongabeak Jaunaren gauzetan du ardura, nondik Jaunari atsegina emango; emaztedunak, berriz, munduko gauzetan du ardura, nondik emazteari atsegina emango, eta bitara dago. Emakume senargabeak eta neskatxak Jaunaren gauzetan dute ardura, gorputz eta arima Berarentzat izateko. Senardunak, berriz, munduko gauzetan du ardura, nondik senarrari atsegina emango.

Hau zuen onerako diot, ez zuei sare bat jartzeko; gauza on batera bultza nahiez esaten dizuet, horrela eragozpenik gabe Jaunari lot zakizkioten.

EBANJELIOA: Mk 1, 21-28

Aleluia: Mt 4, 16

R/. Aleluia.

V/. Ilunbetan zebilen herriak
argi handi bat ikusi zuen;
herio itzalpeko lurraldean zeudenei,
argi bat agertu zitzaaien. R/.

Itzal haundiz erakusten zuen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Iritsi zen Jesus Kafarnauna, eta hurrengo larunbatean sinagogan sartu eta erakusten hasi zen. Harriturik zeuzkan denak bere erakutsiekin; itzal haundiz erakusten bainzuen, eta ez idazlariek bezala.

Sinagoga hartan gertatu zen, hain zuzen, deabru lohiak harturik zeukan gizon bat, eta deiadarka esan zuen: «Jesus Nazaretarra!, zer dugu ikustekorik Zurekin? Gu galtzeko etorri al zara? Badakit nor zaren: Jaungoikoaren Santua».

Jesusek zorrotz agindu zion: «Zaude isilik eta atera zaitez gizon horrengandik!» Eta gizona astinduz eta orroaka atera zen deabru likitsa.

Denak harriturik gelditu ziren, eta honela zioten elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Hau bai dela erakutsi berria eta itzal haundiz emana! Deabru likitsei ere agintzen die, eta horiek obeditu egiten diote!»

Eta laster zabaldu zen Haren izena bazter guztietara, Galilea osoan.

Oparigaien gainekoa

Hona hemen, Jauna, aldare gainean,
zure zerbitzarion eskaintza;
hartzazu bihotz onez
eta egizu guretzat sakramentu salbagarri.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Indarberritu egin gaituzu, Jauna,
gure erospenerako sakramentuaren bidez;
iguzu, egiazko fedean beti aurrera egin dezagula,
betiereko salbamenaren janari honi esker.
Jesu Kristo.